

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Poloniako ordezkari bat Nafarroa bisitatzen ari da bertako industria-berrikuntzaren eredia ezagutzeko

Teknologia-zentro, unibertsitate eta enpresen artean berrikuntza eta kooperazioko esperientziak trukatzeko hiru proiektu europarretan parte hartzen du Nafarroako Gobernuak

Martes, 06 de septiembre de 2011

[Lodz](#)-eko probintzia poloniarreko ordezkari bat Nafarroan izan zen iragan abuztuaren 31n eta irailaren 1ean Nafarroako Gobernuak garatzen duen industria-berrikuntzan zer politika dun ezagutzeko eta, zehazki, enpresa, teknologia-zentro eta unibertsitateen arteko kooperazio-programak ezagutzeko.

Bisita [Foru Erkidegoak parte hartzen](#) duen [Making Knowledge Work](#) proiektu europarrean aurreikusitako jardueren barnean kokatzen da.

Lodz-eko Gobernuaren ordezkariak eta probintzia horretako bi unibertsitate eta bi teknologia-zentrotako ordezkariak osatutako ordezkari taldea poloniarrek bilerak izan zituen [Nafarroako Zentro Teknologikoen Sareko \(RETECNA\)](#), [Nafarroako Industriaren Elkarteko \(AIN\)](#) [Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroko \(CEIN\)](#) ordezkariekin. Bilera horietan, [Euroinnova Navarra](#) programaren barnean I+G+b-ko proiektuak sortzen pilatutako metodologia nahiz esperientziei buruzko informazioa jaso zuten.

2008 eta 2010 artean, Nafarroako Gobernuak I+G+b-ren barnean dauden 40 proiektu finantzatu ditu programa honetan, eta ordezkari taldea poloniarreko kideek proiektu horietako zenbaiten emaitzak ezagutu ahal izan zituzten: [Elkagaien Teknologia eta Segurtasunerako Zentro Nazionalaren \(CNTA\)](#) "*Elkagai funtzionalak*"; [AH Asociados](#) enpresaren "*Nanocons*"; eta [Nafarroako Unibertsitate Publikoaren](#) "*Eguzki-irradiantzia*".

Ordezkaritza poloniarrek [Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalaren \(CENER\)](#) instalazioak ere bisitatu zituen, eta baita Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroko (CEIN) [Navarra Factori](#) espazioa ere, Noainen.

Making Knowledge Work proiektua Europako Eskualdeen



Lodz-eko ordezkari taldea (Polonia) Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalaren (CENER) egoitzaren aurrean.

Garapenerako Funtsak (FEDER) kofinantzatzen du eta Eindhoven eskualde holandarra da buru; bertan Europako beste 12 eskualdetako kideek parte hartzen dute. Proiektu honen barnean, Flandia (Belgika), Nord Pas de Calais (Frantzia), North-West (Erresuma Batua) eta Kujawsko-Pomorskie (Polonia) eskualde europarretako ordezkariak [2010eko azaroan Nafarroa bisitatu zuten](#).

Nafarroako Gobernuak, gainera, INTERREG IVC: [Euris](#) programak kofinantzatutako beste bi ekimenetan parte hartzen du, berrikuntza irekiaren esparruan esperientziak nahiz politikak trukatzeko bideratuta dudenak, eta arlo horretan [Nafarroako Gobernua buru da](#); eta "[Scinnopoli](#)", berrikuntza-politiken eraginaren neurketarekin lotutako ohitura onen transferentziak oinarritutakoa (Foru Gobernua bertako kide da).